Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

243 zenbakia
2023 **otsaila**

Prest!

BERBETAN: IÑIGO MARTINEZ PEÑA IDAZLEA

ERREPORTAJEA: ERRIBERAKO ETXEGABETZEAK **BARKUA:** INAUTERI JENDETSUAK IGARO BERRI DITUGU DEUSTUN

TOKIKOM

39-240-241-242-243-



Sustatzailea

Berbaizu euskara elkartea

Babesleak

Intxixu kastola

txantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea.

erraldoien ondalan konpartsa

DEUSTO BIZIRIK Comercios, servicios y hostelería de Deusto

BIHOTZ ALAI FOLKLORE DANTZA TALDEA

ARRAVN TALDEA DEVSTV

ELORRI BERTSO ESKOLA

DEUSTUKO JAI BATZORDEA

S.D. DEUSTO

DEUSTUKO GAZTE LOKALA

zirikatzen!

eaj pnv deustu

EGUNSENTIA ESKAUT TALDEA 1982TIK

ernai Deustua

PARE HAUTSI BIZKAIAN KATEAK

DEUSTUKO GAZTE ASAMBLADA

Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkartea da edukiaren erantzule bakarra

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Bilbao

Babestu Prest! urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

243 zenbakia
2023ko otsaila

aurkibidea

Ibai Etxautz - Jaione Ayestaran	**Iritzia**	4
Tonannsy Soto	**Gurera etorriak**	5

e **erreportajea**
"Erriberan inor ez etxerik gabe"

Auzoko pabiloi abandonatuetan bizi diren bi bizilagunen etxea miatu eta "inpunitate osoz" bertan zituzten objektu asko txikitu eta eraman zituen poliziak otsailaren erdialdean. Egoerarekin nazkatuta eta segurtasun indarren jazarpena salatzeko mobilizatu ziren Deustuko Erriberako auzokideak joan den astean.

6

Ibarrekolanda BHI	**Eskolak**	10
Herri-lurren aurkako erasoa (eta IV)	**Behin batean**	12
Deustun osasungintza publikoaren aldeko mobilizazioak hilean behin egingo dituzte	**Artikulua**	14

b **berbetan**
IÑIGO MARTINEZ PEÑArekin

Solasaldi ederra izan dugu Arangoitin Iñigo Martinez Peñarekin. 'Pantailen garaipena' izeneko liburua kaleratuko du martxoan eta hori eta beste hainbat kontu izan ditugu hizpide hilabete honetako elkarrizketan.

16

Fundiciones Salúrtegi S.A. (2017)	**Irudiak berbetan**	21

LITERATURA Ana Zurimendiren 'Gure Umie' liburua kalean

JAI HERRIKOIAK Deustuko Inauteriak

NUTRIZIOA Ainhoa Maiztegi

KULTUR TXOTX Dafne Gonzalez Villar eta Itxaso Lejarza Argiarro

barkua bete herba

24

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Nerea Cubillo Urkizu
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurraga
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura
Argazkiak: Ecuador Etxea
Publizitatea: Nerea Cubillo Urkizu
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Laura Freijo Iglesia
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01

Ibai Etxautz
Sanikoa

Beto politikorik ez, Deustuko jaiak denontzat!

Euskal Herriko zenbait tokitan gertatu bezala Ezker Abertzaleak Deustuko Jai Batzordera sarrera ukatu dio Gazte Koordinadora Sozialistari (GKS). Ez hori bakarrik, sartzeko proposamena egiteko eta eztabaidarako aukera ere galarazi du, gogoko ez duten eta gurean errotzen ari den mugimendu politikoa bazterrean uzteko asmoz. Agerian geratu da, berriro ere, Ezker Abertzaleak aldarrikatzen duen aniztasuna haren proiektuari enbarazu egiten ez dion eragile eta eremuetara mugatzen dela.

Mugimendu Sozialistaren parte den GKSk lan politiko eta soziala egiten du Deustun, zapalkuntzarik gabeko gizartea ardatz. Horrekin bat, jai eredu parte hartzailea sustatzen du, soldatapeko lanean eta aisialdi industriaren irabazi pribatuetan oinarritutako eredutik urrun. Hala egin du Bilboko zenbait auzotako jai batzordetan parte hartuz, esaterako San Inazion, Errekalden edota Iralan. Auzoetako espazio anitz horietan, grinez eta lan militantearekin jaiak aurrera eraman dituzte, betiere bestelako kolektiboekin eta eragileekin elkarlanean.

Deustun eta Euskal Herriko zenbait tokitan honakoa dago kolokan: guztionak diren eremuak pribatizatzearen aldeko jai eredu baztertzailea sustatzea, edota tokian tokiko aniztasuna errespetatuz kapitalaren logikatik at jarduten duen jai eredu parte hartzailearen alde egitea. Deustuko jaiak denontzat!

Jaione Ayestaran
Kazetaria

Tradizioak negozio

Otsaila liburu bat balitz, tradizioetan oinarritutako kapituluetan banatuko litzateke Euskal Herrian. Hasi orduko anis usaina du hilak, eta lepoetan, neguko arropa eta bufanden artean, koloretako zintak ikus daitezke. Eztarria babesteko, bufandak ez duen beste indar bat omen du San Blas zintak. Zeresanik ez, ahotsak berotzeko.

Izan ere, kanturako erreserbatua dugu hurrengo eguna. Agedak ez zuen ezkondu nahi izan berarekin ezkontzeko eskatu zion gizonarekin. Nahi ez izateko eskubide guztia zeukan arren, torturatu eta hil egin zuten. Mende batzuk joan dira baina harrezkero, zapia lepoan eta makil hotsekin oroitzen dugu bere patua. Eta makilen hotsetik, ia nahigabean, zintzarrien erritmora egiten du salto Euskal Herriak. Zubieta eta Iturenen hasi, eta ipar-hego, mende-eki, txoko guztiak astintzen dituzte inauteriek. Maskaradak, momotxorroak, atorrak... Tolosa bilakatzen da festaren epizentro, baina inor ez da atzean geratzen.

Urteak joan ahala, ordea, mantendu egin diren tradizio hauek aldatu ere egin dira. Gutxi dira ganbarara igo eta lau trapurekin mozorroa egiten dutenak. Are gutxiago, egurra hartu, landu eta Santa Agedako makila egiten dutenak. Eta dagoeneko, ez dugu Abadiñora edo Bilboko San Nikolas plazara joan behar San Blas opil bila. Dena bezala, otsaileko ohiturarik zaharrenak ere merkantilizatu egin dira gurean.

Tonannsy Soto

Jatorria: Mexiko-Jalisco
Bizitokia: Gurutzeta
Lanbidea: erizain-laguntzailea

Duela zenbat etorri zinen Euskal Herrira bizitzera?
Mexikon erizaintza ikasketak hasi nituenean EHUrekin truke programa batean parte hartu nuen. Horri esker 2017an Euskal Herrira etorri nintzen. Hemen, gaur egun nire bikotea dena ezagutu nuen eta horregatik erabaki nuen Euskal Herrira bizitzera etortzea. Jada hiru urte daramatzat hemen bizitzen. Gaur egun Gurutzetan bizi naizen arren, Deustun bizi izan naiz denbora batez.

Bilbo gustuko duzu?
Hemen mendia eta hondartza oso gertu daude eta hori asko gustatzen zait. Gainera, hiri txikia da eta hori oso erosoa da. Bizimodua eta ohiturak ere gustuko ditut. Harrera ona egin didate hemen gainera.

Matxintxun ari zara euskara ikasten. Zelan daramazu?
Duela hiru urte hasi nintzen eta gogoan dut hasieran asko kostatu zitzaidala, oso hizkuntza ezezaguna baitzen niretzako. Orain, Matxintxun B1 mailako taldean nago eta asko pozten naiz kalean euskara entzun eta ulertzen dudanean.

Zergatik hasi zinen euskara ikasten?
2017an Mexikotik truke programa egitera etorri nintzenean, jende askok 'agur' eta 'arratsalde on' bezalako hitzak esaten zizkidan, eta hasieran asko harritzen nintzen. Horrek jakin-mina piztu zidan eta esango nuke horregatik animatu nintzela hizkuntza ikastera.

Zer esango zenioke oraindik euskara ikasten hasi ez den norbaiti?
Askok denbora kontua dela diote, edo oso lanpetuta daudela... nik uste dut norberarentzako denbora ere eskaini beharra dagoela. Gainera, euskara jakiteak lan munduan ate asko zabaltzen dituela deritzot. Euskal Herrian bizi den norbaitek, zergatik ez du euskaraz hitz egiten? Nik uste dut oso garrantzitsua dela.

Zer duzu faltan?
Familia batez ere. Hemen bikotearekin bizi naizen arren, gogorra da senitarteko guztiak hainbeste kilometrotara izatea.

Mexikora joaten zara bisitan?
Urtean behin joaten naiz, azaroan.

Zertan ezberdintzen dira Bilbo eta Jalisco?
Jendea jatorra da bi lekuetan, baina ohiturak eta bizimodua oso ezberdinak dira. Adibidez, hemen inauteriak bizitzeko beste era bat dagoela esango nuke. Mexikon hildakoen egunean mozorrotzen gara batez ere.

Eta janariari dagokionez?
Antzekotasun batzuk aurkitu ditudan arren, oso jaki ezberdinak erabiltzen dira Mexikoko eta Euskal Herriko sukaldeetan; hemen jan ohi den taloak adibidez antza handia dauka nire herrialdean jaten denarekin.
Hala eta guztiz ere, hemen ez ditut Mexikoko kostaldean ohikoak diren jakiak topatzen, *aguachilea* edota *cevichea,* besteak beste. Hemen ezagutu ditudan jakietatik marmitakoa, taloa eta txipiroiak bere tintan nabarmenduko nituzke.

Zoubir eta Toufik Bizinahi auzoguneko atarian, Erriberako auzokideek otsailaren 23an deitu duten mobilizazioaren kartelarekin.

"ERRIBERAN INOR EZ ETXERIK GABE"

Auzoko pabiloi abandonatuetan bizi diren bi bizilagunen etxea miatu eta "inpunitate osoz" bertan zituzten objektu asko txikitu eta eraman zituen poliziak otsailaren erdialdean. Egoerarekin nazkatuta eta segurtasun indarren jazarpena salatzeko mobilizatu ziren Deustuko Erriberako auzokideak joan den astean.

Testua: Nerea Cubillo Urkizu **Argazkiak:** Erriberako Janari Saskia, Nerea Cubillo Urkizu

Hiri-parke teknologikoa eraikitzen hasteko, Zorrotzaurren aurkitzen diren Lancor eta Consonni eraikinak hilabete honetan zehar "hutsik geratuko direla" iragarri zuen egunkari ezagun batek joan den urtarrilean. Eta azken hilabetean eman diren gertakariak kontuan hartuta, badirudi hala izaten ari dela. Beste industria enpresa askoren antzera, Elorriaga Industria Eléctrica S.A "Lancor" eta Consonni Termoelektrizitatea, XX. mendean finkatu ziren Deustuibarran, alabaina, mende aldaketa eman zenean, enpresa gehienek uhartea utzi eta Bilbo inguruko herrietara lekualdatu ziren, eremua pabiloiez beterik utzita. Zorrotzaurre planaren garapenarekin batera, azken hamarkadan pabiloi asko eraitsi dituzte luxuzko etxebizitzak eraikitzeko. Beste batzuetan, ordea, unibertsitate pribatuak edota "auzoaren beharrizanei erantzuten ez dieten bestelako zerbitzuak ezarri dituzte", hala adierazi zuen auzokideen ehuneko handi batek 2021. urtean, auzo elkarteak egindako kale inkesta batean.

Gaira itzulita, jakina da Lancor eta Consonni eraikinen orubean "polo zientifiko-teknologiko" bat eraikiko dutela, Bilboko Udalak Euskadiko Parke Teknologikoen Sarearekin sinatutako hitzarmen baten ondorioz. Batzuek orube horiei etekina nola atera pentsatzen aritu diren bitartean, beste batzuek, aldiz, bestelako alternatiba

Otsailaren 23an, osteguna, Frank Gehry zubian egindako mobilizazioa.

errealik gabe, etxebizitza propioa eraiki dute aspaldi hutsik dauden eremu horietan. Beste askoren artean, argazkian ageri diren Toufiken eta Zoubirren egoera da aipatutakoa. “Bizi-baldintza hobe batzuen bila” duela sei urte iritsi ziren Aljeriatik Erriberara bizitzera. Egun, bizitza horrek kalean lo egitera behartzen ditu.

Sei urte hauetan, kalean eta txatarrean aurkitutako objektuekin eraiki dute etxea Lancor pabiloiaren barruan Toufikek eta Zoubirrek. “Etxe batek behar duen guztia” eskuratu dute denbora guzti honetan, errolda izan ezik. Egoera erregularizatzeko hainbat saiakera egin dituzten arren, “milaka oztopo” aurkitu dituztela azaldu dute biek. Atzerritarren legearen arabera, errotzeagatiko bizi-leku baimena eskuratzeko, gutxienez hiru urtez jarraian eman behar du atzerritarrak estatuan bizitzen. Biek bost urtetik gora daramatzaten arren, zerbitzu sozialek eskaini dieten irtenbide bakarra inguruko aterpetxe sozialetan erroldatzea izan da, horrek dakarren baldintza

Horrela geratu zen Zoubirren eta Toufiken etxea poliziaren miaketaren ostean.

historiako lehen
HEDABIDE MASIBOA DA LIBURUA
BILBO
martxoak 7 - apirilak 29
Bizkaiko Foru Liburutegia
erakusketa
LIBURUAREN ARBOLA
Euskararen Etxea
Bizkaia



Lancor enpresaren eraikina, abandonatuta.

guztiekin: “Aterpetxe horietan erroldatuta egoteak ordu jakin batzuetan fitxatzera edota jantoki sozialetan bazkaltzera behartzen zaitu, eta guk ez dugu hori behar, gure bizitza normalki egitea ahalbidetuko duen etxebizitza sozial bat behar dugu” diote. Azken urteetan, Erriberako bizilagunek harrera “paregabea” egin dietela adierazi du Zoubirrek. Gainera, pandemia garaian sortutako Janari Saskia egitasmoaren bitartez, auzokideek egindako ekarpenekin oinarrizko jaki eta produktuak ematen dizkiete pabiloietan bizi diren 50 lagunetatik 20ri. Horrez gain, Bizinahi auzoguneko dutxak eta garbigailua erabiltzen dituzte, baita bertan dagoen gimnasioa ere. Deustuko Erriberako Janari saskiko kideen arabera, “auzokideek izan behar dute auzora datozenei gizartean integratzeko ardura”.

Polizia-jazarpena

Janari Saskia egitasmoa abian dagoenetik, are gehiago sendotu dituzte harremanak pabiloi abandonatuetan bizi diren auzokideekin, eta “konfiantza ere handituz” joan dela diote. Horiek horrela, orain arte pairatu dituzten polizia gehiegikeriak “normaltzat” jo dituzten arren, azkenaldian eraso horien berri ematea erabaki dute Zoubirrek eta Toufikek “nazka-nazka eginda” daudelako: “Gure egunerokotasunaren parte da polizia gaueko ordu txikitan gure etxea miatzera etortzea. Lo gauden bitartean, goizeko lautan, bostetan.. atea bota, esnatu eta txatarrean lortutako gauzen artean miatzen dute inpunitate osoz. Ezin garela bertan egon esaten digute, baina ez digute bestelako alternatibarik eskaintzen”. Beste batzuetan berriz, jakinarazpen bat bidaliko digutela

Horrela geratu zen Zoubirren eta Toufiken etxea poliziaren miaketaren ostean.

ohartarazi digute, baina orain arte ez dugu ezer jaso". Otsailaren erdialdean itzuli zen polizia hauen etxera eta inolako agindu judizialik gabe, "etxea hankaz gora jarri, bertan genituen gauza asko txikitu eta beste asko eraman egin zituzten, hartu zituzten objektuen zerrendarik edota aktarik utzi gabe. Gainera, hori egin bitartean ez zidaten etxe barruan egoten utzi ere egin". Beste gauza askoren artean, ohe ondoan gordeta zituen txanponak eta billete bat ere kendu ziotela azaldu du Zoubirrek.

Jazarpen larri honen aurrean eta egoerarekin kezkatuta, Erriberako auzokideek elkarretaratzea egin zuten joan den otsailaren 23an Frank Gehry zubian. "Aldian-aldian baina sistematikoki poliziak burututako gizabiderik gabeko ekintza bortitzak" direla salatu zuten mobilizazioan: "Merkatu interesek zuzenean agindutako ekintza hauek neurriz kanpoak direla" adierazteaz gain, "diru gosearen izenean, bizi baldintza txarrenetan daudenak kikiltzeko eta kriminalizatzeko segurtasun indarren erabateko inpunitatea erabiltzen ari direla" gaineratu zuten. Era berean, baimen judizialik gabe polizia edonoren etxean sartzea delitua dela gogoratu dute auzokideek, eta hori salatzeko kexa aurkeztuko dute Arartekoaren aurrean.

Irtenbide bila

Lancor eta Consonni eraikinekin gertatzen ari den bezala, jakina da epe labur-ertainean egoera berdintsua emango dela aldameneko pabiloi abandonatuetan bizi diren gainerako auzokideekin, hala proiektatuta baitago Zorrotzaurre planean.

Hori dela eta, "indarrez kanporatu nahi dituzten pertsona hauen baliabideetara egokituko den konponbide bat bilatzea" eskatu diete Deustuibarra "aukera anitzeko lur eremu gisa" zabaltzen ari direnei.

Azkenik, auzoan jaio eta hazi diren gazteei auzoan independenteki bizitzen jarraitzeko aukerak bermatu behar zaizkiela aldarrikatu dute, euren diru-sarreren araberako konponbideak eskainita: "Erribera auzoak ez du ez ikusi egingo, ez onartuko, horrelako praktika mafiosorik. Erakunde eta administrazioaren aldetik, gutxieneko enpatia eta inplikazioa exijitu behar dugu. Soluzioak eta bestelako irtenbideak behar ditugu, bereziki orain pertsona hauentzat, baina baita epe labur-ertainean gerta litezkeen bestelako kasuetan ere, hau da, Zorrotzaurre Plana deritzon horren ondorioz Erriberatik kanporatuak izan litezkeen guztientzat".

IBARREKOLANDAKO KORUA

Ibarrekolandako korua, izenak dioenez, Ibarrekolandan sortutako korua da. Ibarrekolandan orain dela urte asko zegoen koruari amaiera eman behar izan zitzaion, baina orain dela pare bat urte, gure zuzendariak, Josunek, Ibarrekolandako korua berrezarri zuen; gainera, bera Bilboko koruan egonda, eta operaren parte hatzailea den aldetik, ez zaio falta musika ikasi eta irakasteko trebeziarik. Zuzendari aparta da azken finean.

Testua eta argazkiak: Ibarrekolanda BHI

Ibarrekolandako korua, izenak dioenez, Ibarrekolandan sortutako korua da. Ibarrekolandan orain dela urte asko zegoen koruari amaiera eman behar izan zitzaion, baina orain dela pare bat urte, gure zuzendariak, Josunek, Ibarrekolandako korua berrezarri zuen; gainera, bera Bilboko koruan egonda, eta operaren parte hatzailea den aldetik, ez zaio falta musika ikasi eta irakasteko trebeziarik. Zuzendari aparta da azken finean.

Pasa dan urtean koru txiki bat sortu genuen Ibarrekolandako ikasleok, zuzendariaren eta Batirtzeren laguntzarekin. Bera, Batirtze, koruaren arduradun egon da eta behar izan dugun guztian lagundu digu. Errepertorio txiki bat prestaturik eta zailtasunak landuz aurrera eraman ahal izan genuen gure nahia. Ikasturtea bukatu baino lehen, Bilboko eliza eder batean, gure lan handia erakusteko aukera izan genuen, Bilboko Jesusen Bihotza elizan, hain zuzen ere.

Ikasturte honetan lagun berriak izan ditugu koruan, batxillergoko eta DBH-ko (derrigorrezko bigarren hezkuntzako) ikasleak, lantalde berean parte hartuz eta harremanak sortuz. Ibarrekolandako koruan, abesteaz gain, lagunak egiten ditugu eta beti hartuko dugu jendea eskuak zabalik gure taldean, nahiz eta urrunetik etorri.

Ikasturte hau koruarentzako pausu handiko ikasturtea izan da, proiektuz eta aukeraz betea. 2022. urteko Fair Saturday-ra joan ahal izan gara, jendaurrean abesteko aukera izanik, orkestra eta izugarrizko koru eta abeslariekin batera, Miribilla frontoia ia beterik zegoela.

Koruak aurrera egingo du eta bidean zehar aukera gehiago eta handiagoak sortuko zaizkio. Hilabete batzuk barru, Campos Eliseos antzokian abestuko dugu. Egun horretan gure koruaren ahalmenik onena erakusteko errepertorioa prestatzen ari gara: kanonak, hiru telesaio biltzen dituen “mashup”-a, bakarlariak, etab.

Esan beharreko gauza garrantzitsuena gure ustez korua zer den erakustea da. Gure iritziz, lehen esan bezela, lagunak egiteko eta taldea sortzeko aukera ezin hobea da; baina ez hori bakarrik, korua gure barneko guztia ateratzeko lekua ere bada. Uste dut ez dudala nigatik bakarrik esaten, bertan libre eta aske sentitzen naizela esaten dudanean. LIbre eta aske musikarekiko dugun harremana eta maitasuna erakusteko; ez bakarrik entseguetan, lehen apaitutako kontzertuetan eta etorriko direnetan ere dena emateko.

Amaitzeko, esan beharra dago Ibarrekolandako koruak kanporako ateak ere ireki dizkigula. Aurten, koruan gauden batzuei Bilboko gazteen korura joateko bidea azaldu zaigu, Euskeriara. Horrek gure musika bidea egiten lagunduko digu, gutxinaka-gutxinaka, bakoitzak nahi duen puntura arte, azkenean norberak erabakitzen baitu musikaren garraiobideak non egiten duen geralekua eta noraino heltzen den.

HERRI-LURREN AURKAKO ERASOA (ETA IV)

Lau atalotan deustuarrek herri-lurrak eta zilegi-ondarea zelan galdu zuten azaltzen ahalegindu gara. Azken honetan, noren mesedetan gertatu zen jakin nahi izan dugu.

Testua: Hektor Ortega

Elorrieta eta Zorrotzaurre arteko ogenak (arloak), 1885ean. Argazkia: Pedro Telesforo Errazquin / Bilboko Euskal Museoa.

Herriari ezarritako kontribuzioak eta bestelako gastuak zama jasanezina bilakatzen hasi zirenean, esanguratsua da herriak hartu zuen lehenengo erabakia. 1810eko martxoan, udal batzar irekiak ebatzi zuen lur-neurtze eta mugarriztatze orokorra egitea Deustuan, azken hamarkadetan herriari ostutako lursailak berreskuratzeko. “Pertsona askok herri-lurrak beraientzat hartu dituzte”, jaso zuen udal bilkuraren aktak. Lursail horiek, jakina, artikulu sorta honetako lehenengo atalean jaso genituenak dira. Alegia, herri-lurrak saltzeko aukera ireki aurretik herriei lapurtutakoak. Deustuarrek horiek berreskuratu nahi zituzten “herriak dituen gastu handiei eusteko bere ogenak eta etxeak saldu behar izan barik”. Ostutako lursailen handia ematen digu aditzera. Ez dakigu Deustuak lortu ote zuen lurrak neurtzeko eta mugarriak aztertzeko baimen hura, baina ezezkoan gaude. Izan ere, ikusi dugun bezala, handik gutxira, 1810eko maiatzaren eta 1811ko maiatzaren artean herri-lur sorta zabala saldu behar izan zuen, gerra hartan saldu zuen guztiaren erdia, kasik. Eta orduan ere, komeriak. Izan ere, 1811ko martxoan udala kexu azaldu zen zilegi-lurrak saltzeko enkantea eginda ere, ez zelako eroslerik azaltzen. Zergatik? Herriak salgai paratutakoak ez zirelako erosleek nahi zituzten lursailak. Deustuko udalak baimena eskatu zuen saldu ahal izateko “erosleek nahi dituzten lursailak”. Aurrerantzean erosleak izan behar ziren, hortaz, erabakitzen zutenak zer

saldu eta zer ez. Salmenta prozesuaren erabateko kontrola lortu zuten, alegia.

Hori ere ez dakigu gauzatu zen ala ez. Baina 1812ko abuztuan, artean herriak zorretan itota eta diru-kutxak hutsik segitzen zuela, erabaki latza hartu zuten deustuarrek: zorra kitatzeko, zordunen artean banatu behar zituzten herri-lurrak, bakoitzari ze lursail eman zozketa bidez erabakita. Horrelako erabakiak zilegi-ondasunen pribatizazio prozesuaren amaieran hartu zituzten herri gehienek, lursail onenak saldu eta gero.

Onuradunak

Zaila da herri-lurren salmenten onuradunen zerrenda zehaztasunez osatzea, ez dugulako aurkitu salmenta guztien dokumentazioa. Hala ere, badago jakiterik nork bereganatu zituen ondasunik preziatuenak. Deustuko herriak pasaia-etxe bi zeuzkan, Ibaizabaleko beste mandara igarotzeko batel zerbitzuarekin: Zorrotzaurre (Zorrotzako ontziolaren aurrean) eta Elorrieta, Barakaldoko Errotabarriren aurrean. Zorrotzaurre, inguruko ogen (arlo) oparoekin, Teresa Gordiak erosi zuen. Madariaga dorretxeko andrea zen Gordia, Basabetar leinu ahaltsuaren burua, eta ez zuen galdu Deustuko bere jabego zabalak handitzeko aukera.

Elorrieta, berriz, Francisco Lemonauriak erosi zuen. Egia esanda, Elorrieta izeneko etxe biak erosi zizkion herriari XIX. mendeko lehenengo urteetan. Eta inguru hartako baserri gehiago eskuratu zuen sasoi hartan. Merkatari ahaltsua, Lemonauriak tropen horniduran jardun zuen gerra garaian. Gerra ostean, berriz, beltz-tratulari ibili zen (ikus PREST! 215 zenbakia), besteak beste.

Hala ere, ez Teresa Gordia, ez Francisco Lemonauria ageri dira 1810-1811ko salmenta zerrendan. Bitarte horretako eroslerik handienak ondoko hauek izan ziren: Bruno Francisco del Villar legegizona eta lur-jabea, Jose Antonio Goikoetxea merkatari eta armadaren hornitzailea, Alejandro Villabaso merkataria, Jose Antonio Olalde merkatari eta lur-jabea, Enrique Goossens merkataria, Joakin Jimenez ontzigintzako enpresaria eta Juan Beika merkataria.

Alegia, 1810-1811ko erosle gehienak merkataritzari (eta, sarritan, armadaren hornikuntzari) lotutako aberatsak dira. Hauek Deustuko ogen oparoak eskuratu zituzten eta, kasu batzuetan, baserriak eraikiarazi zituzten, errentan emateko gero. Lege Zaharreko krisialdian, sistema berria jaiotzeko zegoen kinka hartan, aberats horiek eskema zaharrak zerabiltzaten oraindik ere: merkataritzaren etekinak itzal soziala (eta errenta seguruak) bermatzen zituen lurren erosketan inbertitu zituzten.

Ezin dugu jakin, oraingoz, erositako prezioa ona ala txarra izan zen Deustuko herriarentzat. Leku askotan gertatu zen herri-lurrak tasatutako prezioaren oso azpitik saldu zirela (hori tasazioa neurrikoa izan zen ala ez aztertu barik). Deustuan horrelako kexa bakarra ikusi dugu. 1819an herritar batek salatu zuen zilegi lur sail bat “oso merke” saldu zela eta berak askoz gehiago eskaini zuen. Herriak bere eskaintza onartzea erabaki zuen eta, hortaz, balio barik uztea lehenengo salmenta.

DEUSTUKO JAIAK OSPATUKO DITUZTE MARTXOAREN 17TIK 26RA

Mozorroak gorde eta trukean zapi gorria ateratzeko unea hurbiltzen ari zaie Deustuko herritarrei. Programan falta ezin diren jarduerez gain, badira ere Deustuko Jai Batzordeak eragile eta elkarte ezberdinen laguntzaz ekarritako berrikuntza ugari.

Programan falta ezin diren jarduerez gain, badira ere Deustuko Jai Batzordeak eragile eta elkarte ezberdinen laguntzaz ekarritako berrikuntza ugari.

Martxoaren 18ko 'arrozahotsaz' txapelketa gastronomikoa 'munduko arrozak' bihurtu dute. Honako hau, auzoan aurkitzen diren kolektibo arrazializatu ezberdinekin prestatu dutela azaldu du jai batzordeak, eta horrez gain, egitasmoa borobiltzeko, herrialde ezberdinetako herri kirolak eta kontzertu bereberra ere izango dira egun berean Done Petri plazan. "Jai parte hartzaileak aldarrikatzen ari garen bitartean, badakigu jaietan, inertziaz, kolektibo asko kanpoan uzten ditugula, eta hori izan da aurtengo erronketako bat. Pertsona arrazializatuen problematika lantzen duten elkarteekin harremana estutu eta egun batez egitarau bateratu bat antolatzea". Ostean, besteak beste, arrakasta handia izan ohi duen umeentzako playbacka izango da leku berean, Goazen! telesaioko aktoreek dinamizatuta.

Arroza txapelketaz gain, bestelako egitasmo gastronomikoren lekuko izango da Done Petri plaza aurten ere: astebete beranduago, hau da, 25ean tomatea ardatz hartuta, dena delako platerak aurkeztu beharko dituzte parte hartzaileek eta azkenik, 26ean tortilla txapelketa egingo dute.

Martxoaren 19a, igandea, izango da egun nagusia. San Felizisimotik abiatuko da aurten 25 urte betetzen dituen alkatearen kalejira, Deustuko Udal Korporazioak lagunduta. Ostean, 13:00etan Deustuko emakumeen aurreskua izango da Done Petri plazan.

Bigarren asteko egitaraua asteazkenean hasiko da Berbaizu Euskara Elkarteak antolatutako irakurleen txokoarekin. Ostegun arratsaldean Matxintxu euskaltegiaren laguntzaz, konpartsa eta kuadrillen arteko Mingainluze txapelketa antolatu dute plazan eta honen ostean, dagoeneko auzoan errotuta dagoen bertso saioa. Asteburuko planari dagokionez, adin eta gustu guztientzako jarduerak antolatu dituztela azaldu dute jai batzordeko kideek. Berrikuntzen artean, helduentzako zunba saioa larunbatean edota harri zulatzaileen ikuskizuna igandean.

Erasoen aurkako protokoloa

Denontzako jai esparru seguru bat bermatzeko asmoz, PARE Deustuko Gazte Talde Feministak erasoen aurkako protokoloa osatu du jai batzordearekin elkarlanean.

Honen zabalpena egiteko hainbat saio egin dituzte azken hilabete honetan eta honen helburu nagusia, eraso baten aurrean erantzun bateratua ematea izango da. Martxoaren 13an egingo dute protokoloaren aurkezpen ofiziala.

DEUSTUN OSASUNGINTZA PUBLIKOAREN ALDEKO MOBILIZAZIOAK HILEAN BEHIN EGINGO DITUZTELA IRAGARRI DUTE

Bilboko Auzo Elkarteen federazioaren deialdiarekin bat eginez, otsailaren 9an osasungintza publikoaren aldeko elkarretaratzea deitu zuten Gora Deustu Taldeak eta Bihotzaran Arangoitiko auzo elkarteak. “Ezagutzen dugun osasun publikoa desegiten ari dela” salatzeko kontzentratu ziren anbulatorioko atarian, eta hala egingo dute berriz ere datorren martxoaren 9an, osteguna.

Azkenaldian osasun pribatuari ateak parez pare zabaldu dizkiotela salatu zuten eta pribatizazio horren ondorioz “jende asko osasuna eta zaintza bezalako funtsezko eskubiderik gabe geratzen ari dela” gaineratu zuten. Era berean, pandemiaren aitzakiarekin, hasiera batean “prebentziozkoak” ziren neurri ugari betiko ezarri direla deritzote, telefono bidezko arreta, besteak beste.

Pandemiaz geroztik ez dira gutxi izan osasungintza publikoan izandako murrizketak, eta horietako batzuk zerrendatu zituzten ere: “Deustuko gaueko arreta presentziala ixtea, samurra (anbulantzien udal zerbitzua) ixtea, pediatriako zerbitzua hainbat auzotan desagertzea, Olabeagako dispentsarioa ixtea... Horri gehitzen badizkiogu artatuak izateko edo probak egiteko ilarak, kontsulta aseak, osasun-langileen eskasia..., ikusten dugu inoiz baino beharrezkoagoa dela egoera irmoki salatzea eta erakundeei norabide aldatzeko eskatzea, osasun- eta zaintza-arloari dagokionez”

Esan bezala, martxoaren 9an elkartuko dira berriz ere osasungintza publikoa, hurbila, presentziala eta duina eskatzeko, indartutako lehen arreta batekin.

berbetan

IÑIGO MARTINEZ PEÑArekin

Idazlea

“Badirudi bi aukera baino ez daudela,

Solasaldi ederra izan dugu Arangoitin Iñigo Martinez Peñarekin. ‘Pantailen garaipena’ izeneko liburua kaleratuko du martxoan eta hori eta beste hainbat kontu izan ditugu hizpide hilabete honetako elkarrizketan.

Testua: Nerea Cubillo Urkizu
Argazkiak: Ecuador Etxea

pantailan agertu edo pantailari begira egon”

Mandamentu Hipermodernoak liburua kaleratu zenuen 2021ean. Gaur egungo gizartea azaltzeko, iraganeko pentsalarien erreferentziak erabili dituzu bertan.
Mirari bat dela ematen du, ezta? Liburuei esker beste garai batzuetako pertsonekin hitz egin dezakegu, gure arbasoen ideiak jaso… Liburuek presentzia berezi bat ematen diote ausentziari, jada ez dagoenari. Hori bai liburuen magia! Filosofiaren kasuan, berdinberdin, belaunaldien arteko elkarrizketetara lotzen gaituzte. Eta oso erabilgarriak izan daitezke, adibidez, aurrerapenaren mitoa zalantzan jartzeko. Hainbeste aurreratu al dugu? Kontu batzuetan, ez dut uste. Badira garai guztietan bueltatzen diren galderak: Zer da maitasuna? Zer da adiskidetasuna? Zer da pertsona ona edo justua izatea? Norberak bere erantzun propioak bilatu behar ditu, baina badira solaskide historiko interesgarri batzuk helduleku.

Jende askorentzako filosofia eskolan ikasitako irakasgaia baino ez da. Nola gainditu daitezke aurreiritzi horiek? Zure ustez filosofia kalekoa ala akademikoa da?
Filosofia bera zer ote den, filosofiaren ohiko galdera ere bada. Nork erabaki dezake filosofia hitzaren azken definizioa? Zorionez, ez dago azken hitzik, eta horregatik jarraitzen dugu berbetan, solasaldirako gogoz. Batzuentzat filosofia eskolako ikasgaia baino ez da izango. Ados. Zer egingo diogu? Ez dugu zertan mundu guztia filosofiaren balioaz konbentzitu behar… Baina Agora filosofia elkartetik, galdera existentzialak egiteko espazioren bat piztuta mantendu nahiko genuke; eskolan eta eskolatik kanpo. Zentzu horretan, filosofia mugalaria da: hanka bat du akademian, kalean bestea. Izan ere, galdera filosofikoak ez dira soilik kontu intelektualak, geure bizitza zeharkatzen dute.

Azken urteetan onartutako hezkuntza erreformek (LOMCE, HEZIBERRI) eragin handia izan dute filosofia ikasgaian. Zein egoeratan aurkitzen da filosofia Hego Euskal Herriko hezkuntzan?
Hezkuntza legeak behin eta berriro aldatzen ari dira eta, beraz, ez da erraza irakaskuntzan soseguz aritzea. Etengabeko aldaketaren eta berrikuntzaren paradigmaren menpe bizi gara, nahiz eta hori ez izan beti hobekuntzaren sinonimoa.

Oraingo lege berriarekin, adibidez, “Balio Etikoak” ikasgaian orduak galtzen dira eta “Filosofiaren Historia” ikasgaian, aldiz, irabazi, batxilergoko modalitate guztietara bueltatu delako. Argi-ilunak daudela esango nuke. Gauza on bat? Emakume pentsalari gehiago sartzen direla oraingo programazioan, hots, mendeetan zehar pentsamenduaren historiatik ezabatuak izan diren ahotsak. Horrek, agian, izaera berri bat emango dio ikasgaiari.

“Hainbeste aurreratu al dugu? Kontu batzuetan, ez dut uste.”

berbetan

IÑIGO MARTINEZ PEÑArekin

▷▷ SAKONEAN

“Gure garaian komunikazio asko dago, eta komunitate gutxi”

Deiak alde batera geratzen ari diren garai honetan, Whatsapp aplikazioa erabiltzen ez duen gizartearen ehuneko txiki horren parte zara. Zergatik?

Nire osasun mentala babesteko. Zarata digitalak erotzen nau, mezu asko pilatzen zaizkidanean exijentzia basati gisa bizi ditut, arin erantzuteko presioa... Beraz, arrazoi nagusia existentziala da. Biziraupen kontua. Unibertsitatean tesia amaitzen ari zen lagun batek Whatsappa kendu behar izan zuela kontatu zidan. Irakurtzeko arreta sakona ezinezkoa egiten zitzaion: mugikorrera une oro bideoak edo mezuak heltzen zitzaizkion eta, buf! Ezin kontzentratu.

Oztopoak aurkitzen dituzu? Egun informazio truke asko dago sare sozialen bitartez, whatsappetik batez ere.

Bueno, bromak egiten dizkidate nire telefono ustez zaharragatik: alabak, semeak, ikasleek… Baina ni baino askoz gazteagoa da daukadan telefonoa! Sinpatiaz hartzen ditut broma horiek. Guztiak ez gara zertan berdinak izan behar ezta? Nik, oraingoz behintzat, ez dut smartphonik nahi. Hala ere, bazterketa batzuk pairatzen ditut: ezin da udalako bizikleta bat alokatu, adibidez, smartphonik gabe. Eta, informazioaren aldetik? Zerbait galduko dut, baina ahoz aho ere heltzen dira albiste edo kedada asko… Dena den, badago tranpa bat nire aldetik: bikotekideak whatsappa dauka eta berak kudeatzen ditu eskolaz-kanpoko gure seme-alaben talde ugari. Eskerrak berari!!
Egungo mezu digital gehienak, berriz, lanean eta bulego zein enpresa berdinean ari diren pertsonen arteko mezuak dira, lan kontuak argitzeko. Gure garaian komunikazio asko dago eta komunitate gutxi. Horixe da Byung-Chul Han filosofoaren tesia. Agian horregatik gustuko ditut bereziki Arangoiti plaza, kafe filosofikoak, irakurketa klubak… Horrelako elkargune ederrak.

Nola aplikatu daiteke filosofia egunerokotasunean edo norberaren bizitzan?
Modu askotara. Filosofia ez da ez kontu teorikoa, ezta praktikoa ere. Mugalaria da. Adiskidetasuna, maitasuna edo justizia zer diren pentsatzeko moduak lagun, maitale edo hiritar izateko erak baldintzatzen ditu. Baina, noski, galderetan egoteko tartea hartu behar da, eta gure bizimodu azkar, ekintzaile eta hiperaktiboan ez dugu horretarako arnasgune askorik izaten.

Nola hartzen dute ikasleek ikasgaia?
Denetarik nago, noski. Baina, galdera hau ikasleek erantzun beharko lukete (eta, agian ebaluazio edo ikasturte amaieran bada hobe…). Dena den, inpresioa daukat nerabezaroa filosofatzeko momentu ederra dela: ordura arte gurasoengandik, irakasleengandik edo gizartetik jasotako erantzunak zalantzan jartzeko momentua delako, norbere ahots propioa bilatzeko une existentziala.

Martxoan kaleratuko duzu idatzitako bigarren liburua. Nondik dator 'Pantailen Garaipena' liburuaren ideia?

Gaur egun, den-dena grabatzen dugu. Umeen txangoa dagoela auzoko eskolan? Hantxe gaude gurasoak bideoak eta argazkiak ateratzen, umeek autobuserako ibilbidea egiten duten bitartean. Kontzertu batera goazela? Mugikorrarekin grabatzeko joera izan ohi dugu. Badirudi munduaren eta gure artean pantaila bat jarri dugula, horma gisa. Eta, badirudi, bi aukera baino ez daudela, pantailan agertu edo pantailari begira egon. Kezkagarria egiten zait, ordea, guk pantaila begiratzean pantaila ere guri begira dagoela, gure datuak jasotzeko prest. Kapitalismo digitala eta irudiaren kultura pentsatu nahi izan ditut liburuan zehar, eta baita ikusezina denaren alde egin. Uste dut garrantzitsua dela bizitzan gune ikusezinak izatea: psikologikoki, etengabeko begiradaren kontra, politikoki, intimitatea babesteko edo erotikoki, fantasiaren alde egiteko.

Teknologiaren aurrerapenek zure ustez zer onura eta zer galera ekartzen dizkio gizarteari?

Uste dut ezin dela modu dikotomikoan planteatu: kontua ez da teknofoboa edo teknoprofeta izatea. Agindu nahi diguten teknokrazia da nik zalantzan jarri nahi izan dudana.

Zein alternatiba ikusten dizkiozu teknologiaren garapenak ekarritako indibidualismoari?

Hitz egitea. Digitalizazioak eragindako sufrimenduak, eragindako sintomak partekatzea. Adibidez, nire ikasleek Tik-Tokeko bideoak ikusten orduak ematen dituztela salatzen dute. Zergatik? Ez dute nahi baina aldi berean ezin dute gelditu. Selfie perfektua igotzearen presioa ere hor dago… Ez dakit, horri buruz hitz egiteko espazioak bizirik mantentzea bide bat izan daiteke, bakardade eta nekezia digitalari aurre egiteko.

Liburuaren sinopsiaren arabera, usaimenaren bitartez egiten duzu gizartearen erradiografia oso bat. Gizarteari kiratsa dariola aipatzen da bertan. Zergatik?

Hori da Olatz Mitxelenaren ekarpena, berak idatzitako hitzaurrean. Begiradaren eta pantailen totalitarismoari, ikusmenaren nagusitasunari aurre egiteko, beste zentzumenak kontrajarri nahi izan ditu: usaimena, dastamena, ukimena… Pantailen arabera irudi hutsak gara. Eta gorputzak? Egungo digitalizazioak gorputzarekin dugun harremana birpentsatzera garamatza. Elkarrekin pentsatu beharreko kontua…

Indibidualismoari aurre egiteko sortu zenuten hain zuzen ere Arangoiti plaza egitasmoa, eta arrakasta izan du. Zergatik uste duzu funtzionatu duela?

Ez dakit. Pandemiak, agian, mundu digitalaren onurak bai, baina mugak ere erakutsi zizkigun: Zoom nekezia. Ezin ginen digitalki besarkatu! Agian horregatik antolatutako kafe edo pote filosofikoek, irakurketa klubek edo Arangoiti plaza moduko ekimenek funtzionatzen dute…

Egungo gizarteak merkatua, indibidualismoa eta teknologia digitala ditu ardatz. Horren kontrako erresistentzia gunetxoak izan daitezke? Elkargune horiek beste auzo, herri edo hiri mota bat irudikatzen dute: gune komertzialetatik eta pantailetatik harago.

"Gaur egun, den-dena grabatzen dugu. Umeen txangoa dagoela auzoko eskolan? Hantxe gaude gurasoak bideoak eta argazkiak ateratzen"

DEUSTUKO GAZTERIA

Martxoaren 4an, Mambo!

Independentzia, euskara eta Euskal Herria erdigunera ekartzeko asmoz, formakuntza, kultura eta aisialdia uztartuko dituen Mambo eguna antolatu du Deustuko Matxingorri gazte konpartsak martxoaren 4an, larunbata. Deustualdeko gazteriari zuzendutako hainbat jarduera izango dira egunean zehar. Horiek horrela, goizeko 10:30ean mural margoketa egingo dute Ibarrekolandako plazan. Ordubete beranduago, 11:30ean, EHUko komunikazio-irakaslea den Estitxu Garai eta Joxe Mari Agirretxe hizlari izango dituen bertso-hitzaldia izango da leku berean, Miren Amuriza eta Uxue Alberdi bertsolariekin. Eguerdian, triki poteoa abiatuko dute Ibarrekolandako tabernetatik eta ostean, bazkari herrikoia izango da institutuan. Arratsaldeko egitarauari dagokionez, 18:00etan DJ Reimy bizi soundek Ibarrekolandatik Deusturako bidea girotuko du eta 21:30etatik aurrera Deustuko Herriko Tabernan izango diren kontzertuek emango diete egunari amaiera.

BERTSOLARITZA

AFERAK 5.0

Atzean utzi genituen sareetako bertso eta maskarekin ikusi beharreko Bidarteko saioak. Irailean hasi ginen Aferaken 5.edizioa antolatzen eta dagoeneko 4 saio antolatu ditugu Deustuko Herriko Tabernako atzekaldean. Nabaria da ikaslez betetzen dugula atzekaldea eta bereziki eskertzen dutela Aferakek eskaintzen duena. Gu ere bagabiltza ikasten, egin dugu ikasturteko ebaluazio jarraia eta 4 saioetan nota ona jaso dugu: jende nahikoa gerturatu da, bertsolari gazteek abestu dute, eta aspaldiko sentsazioak berreskuratu ditugu. Hala ere, martxoaren 11n, bertso-bazkarian, daukagu azken azterketa eta ikasle oro legez, urduri egongo gara egun handia iritsi arte. Frogaren egunean Oihana Bartra, Maite Sarasola eta Jone Uriaren bertsoak izango ditugu aztergai. Hurreratzeko asmoa izanez gero, jakin bertso-bazkariko bonoak Berbaizun eta Deustuko Herriko Tabernan daudela. Espero dugu froga ondo atera eta 5.0 baino nota hobea lortzea.

ANTZERKIA

Deustualdeko Klown jaialdia ospatu dute otsailean zehar

Otsailaren 9an hasi eta martxoaren 3ra arte Deustuko eta San Inazio-Ibarrekolandako udaltegietan Klown disziplina ezagutzera emateko egitasmoa antolatu du Bilboko Udalak. Guztira zortzi ikuskizunek osatu dute aurtengo Klown jaialdiaren egitaraua eta antolatzaileen arabera, parte hartu duten konpania guztiek "ibilbide luzea egin dute klown modalitateko antzerkian". Halaber, jaialdian parte hartu duten zortzi horietatik lau Euskal Herrikoak izan dira. Esan bezala, otsailaren 9an eman zioten hasiera jaialdiari, Andaluziako Malaje konpaniaren 'Cave Canem?' sorkuntzarekin. Ostean, Hego Euskal Herrian "ohitura ikaragarria duen sorkuntza mota hau mahaigaineratzea" helburu, doako sarrera eta adin guztiei zuzendutako hainbat emanaldi izan dira otsaileko egun ezberdinetan.

KULTURA

Martxoaren 9tik 26ra bitartean izango da Loraldia festibalaren 9. Edizioa

'Mailua gara!' lelopean, euskaraz sortzen diren hamaika kultur adierazpen eramango ditu Loraldia Festibalak Bilboko espazio ugaritara. Bernardo Atxagak eta Ruper Ordorikak emango diote hasiera festibalari, joan den urtean abiatutako 'Hautsi da Anphora' biraren grabazioaren aurkezpenarekin. Hurrengo asteetan eta martxoaren 26ra arte, proposamen ezberdinak ekarriko dituzte 'taula' gainera. Bederatzi edizio hauetan, lan handia egin du Loraldiak sortzaile berriak deskubritzen. Antolatzaileen esanetan, "sortzaileak zirikatu izan ditu lurralde berriak ikertzeko, inoiz agian uste izango ez luketen diziplinak lantzeko, ikuskizun erakargarriak sortzeko eta euren sormena Bilboko erdigunera ekartzeko".



Urtea: 2017

Txema Luzuriaga

Fundiciones Salútregi S.A

Hilabete honetako 'argazki zaharrak' atalean Bolardo eta Noray bat ageri dira, Zorrotzaurren izandako enpresa kopuru handiaren adibide gisa. Fundiciones Salútregi S.A. Deustuko Erriberan egon zen urte luzez eta ondoren, egungo Francisco Macia kalera lekualdatu zen. Enpresa honen jardueraren lekuko gisa, Deustun, Algortan, Plentzian eta beharbada probintziako beste leku batzuetan, enpresaren izena daramaten hainbat estolda-zulo eta estolda-estalki aurki daitezke. Beste erreferentzia batzuk aurkitu ditut sarean. Hala nola, SANVAL (Santiago eta Valentin) tailer mekanikoa. 20 urteko jarduna izan zuen eta jabeetako bat, Santiago, Santi Brouarden aita zen. Azken hau bere kontsultan bertan hil zuen GALek, lanean zegoen bitartean.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

AZALA
TATTOO STUDIO
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfnoa: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri
Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez euskara zerbitzua
Probatu herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Deustuko zubia konponduko dute bere dardara murrizteko. Zer deritzozu?



Alejandro
Deustu

Bai, lehen baino gehiago egiten du dar-dar, batik bat autobusekin, baina ez da gehiegizkoa. Bederatzi urte nituenetik gurutzatzen dut zubia.

Pablo
Deustu

Dardara gehiegizkoa da. Zerbait egin beharra dago. Esaterako, zubia eraitsi!

Luisa
Deustu

Ez dit beldurrik ematen, zubia lasai gurutzatzen dut. Horrela izan da 42 urtetan. Kontrolpean dago eta ziurra da. Ez nuke sekula zubia berrituko. Hiriko oinarrietako bat da.

Alvaro
Burgos

Oso polita da zubia, gustuko dut. Baina ez dit konfidantzarik ematen. Esperientzia bizia da bertatik pasatzea.



Eneko
Barakaldo

Autobusa pasa denean dardarak ezustean zubi erdian harrapatu nau. Zubiaren egitura aldatu beharra dago, batik bat azpitik itsasontsi handirik pasatzen ez bada.

June
Barakaldo

Ez nuke esango zubia lehen baino gehiago mugitzen denik azkenaldian. Dardarara ohitu egin naiz.

>> LITERATURA

ANA ZURIMENDIREN ‘GURE UMIE’ LIBURUA KALEAN

Ana Zurimendik, San Inazio eskolako irakasle ohiak, ‘Gure umie’ izeneko liburuaren bigarren edizioa kaleratu zuen joan den abenduan. Liburuaren aurkezpena 2022ko apirilean egin zuen.

Testua eta argazkiak: PREST!

Deustuko eskolako irakasle ohia den eta aldi berean laguna duen Begoña Arangurenek kontatutako pasarte batean oinarrituta, ipuin honek “umetako sekretuak eta beldurrak azaleratzen ditu marrazki eta testuen bitartez”. Aldi berean, haurtzaroko istorio berezi honek, garai bateko baserriko bizimodua, sinismenak eta baloreak uztartzen ditu samurtasun handiz. Zurimendiren esanetan, “liburuak protagonistaren amamaren papera goraipatzen du, amama bera garai hartako pentsamoldetik libre bizi izan zela azalduz”.

Goibel zebilen egun horietara jo behar du Zurimendik liburuaren jatorria azaltzeko. Izan ere, inguruko pertsona batek kontatutako sekretua “zama astun” bilakatu zitzaion eta hura arintzeko asmoz, Arangurenengana jotzea erabaki zuen. Honek trukean kontatutako pasarteak “aurpegian irribarrea jartzea lortu zuela” dio, eta pasarte hori da hain zuzen ere, idazleak ipuin ilustratu honen orrialdeetara ekarritakoa. “Bego lagunari eta iraganari eginiko omenaldi bat” bilakatu da Gure Umie liburua.



Eskuz egindako ilustrazioak

Are bereziagoa da liburua osatzen duten ilustrazioei erreparatzen diegunean. Azken urtean parte hartutako ilustrazio tailerrean ikasitakoak praktikan jarri ditu Zurimendik liburuan. Hala, marrazkiak material ezberdinekin egindako collage modukoak direla aitortu du idazleak, besteak beste, azukre paketeekin osatu ditu orrialdeetan ageri diren marrazki asko. Liburua helduentzako zuzenduta dagoela adierazi du, baita nolabait helduek umeei kontatzeko. Dagoeneko eskuragarri dago Done Petri plazako Deustuko Liburudendan eta Iparragirre kaleko 9. zenbakiko Binario liburudendan.

Mondragon Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan

“Azken teknologiak erabiltzeak asko balio du ikasteko”

Leyre Rubio (Bilbo, 18 urte) Humanitate Digital Globalak (HDG) graduko 1. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?
Salesianos Deuston ikasi dut. Betidanik egin ditut kirol desberdinak, azkenaldian, gimnasiora joatea gustatzen zait. Bestalde, asko gustatzen zait nire lagunekin egotea. Nire nortasunetik gustukoen dudana da beti irribarretsu egotea eta lagunek zerbait behar dutenean, laguntzeko prest nagoela ikustea.

Zergatik aukeratu zenuen HDG gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?
Lagun batek gomendatu zidan eta oso gradu erakargarria iruditu zitzaidan, gaur egungo gizartetik asko ikas daitekeelako. Ikasketa hauek erakusten dute errealitatea nolakoa den eta, gainera, etorkizuneko lanetan pentsatuta, arrakasta handia izan dezakeela hemen ikasitakoak. Antzeko gradurik ez dago beste unibertsitate batzuetan. Gainera, erabiltzen dugun metodologia oso interesgarria da.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?
Denbora gutxi daramat graduan, baina asko gustatzen zait irakasleak ikasleengandik hurbil egotea; azkenean, talde txikia izanik, errazagoa da. Halaber, oso ondo egituratuta dago modulutan, irakasgaietan antolatu beharrean. Denbora hobeto aprobetxatzen da eta eztabaida interesgarriak sortzen dira. Beste gauza interesgarri bat da aniztasun handiena dagoela, eta hori oso baliagarria da gaien ikuspuntu desberdinak lantzeko.

Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?
Mondragon Unibertsitateak ezagutzen ez duen batentzat, eredu pedagogiko bitxia izan daiteke, baina, liburu baten aurrean eseri eta buruz ikasteaz gain, beste gauza batzuk badaudela ikusteko gogoa duzunean, konturatzen zara oso metodologia baliagarria dela eta gauzak hobeto ulertzen direla. Gainera, azken teknologiak erabiltzeak ikasteko asko balio du. Horretan oinarritzen da metodologia: gure burua irekitzea eta arauetatik aparte dagoen bidetik ikastea.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?
Gehien gustatu zaidana da irakasleekin sortzen den tratua. Tratu bikaina iruditzen zait, kontuan hartzen dute gazteak garela eta horrela hartzen gaituztela. Beti daude prest edozein zalantza argitzeko eta laguntzeko. Gainera, asko gustatzen zaizkit AS Fabrik-eko instalazioak: oso erosoak dira eta, gainera, ezgaitasuna duten pertsonentzat prestatuta daude. Hori beharrezko integrazio-keinua iruditzen zait.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?
HDG gradua amaitzean ez dut oso argi zer egin nahi dudan. Baina argi daukat pertsonei laguntzeko zerbaitean aritu nahi dudala, adibidez, Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) batean. Baina beste aukera batzuk ere egon daitezke, esaterako, alderdi politiko batean lan egitea edo berri bat sortzea.

>> JAI HERRIKOIAK

INAUTERI JENDETSUAK IGARO BERRI DITUGU DEUSTUN

Testua eta argazkiak: Deustuko Jai Batzordea

Otsailaren 10etik 12ra bitartean inauteriak ospatu genituen Deustun. Inoiz ikusi izan ditugun inauteririk jendetsuenak izan dira aurtengoak, beraz lehenik eta behin esatea dagokigu oso eskertuta gaudela antolatutako egitarauari emandako erantzunarekin. Ostiralean, mahai-jolasen tematika oinarri hartuta, auzoko kuadrilla ugari hurbildu ziren kaleetan zehar bozgorailu-poteoaren inguruan dantzatzera. Ostean, plazan antolatutako luntxaz gozatu ahal izan genuen.

Larunbatean, plaza kolorez bete genuen ekintza ezberdinekin. Goizean, Deustuko Ikastolako Gure Herria euskal dantza taldeak kalejira egin zuen ikastolatik plazaraino Lantz dantzatuz. Ostean, umeentzako tailerrak egon ziren jai batzordeko kideak diren aisialdi taldeek gidatuta. Eguerdi partean I. kopatxo lehiaketari eman genion hasiera. Aurtengo berrikuntzetako bat izan da aipatutakoa, eta guztira zortzi tabernek prestatutako koktela dastatzeko aukera izan genuen.

Akeita Gozo tabernak irabazi zuen lehiaketa, mojito antza zuen koktelarekin. Bazkarian guztira, 530 pertsona bildu ginen, hori bai arrakasta! Itzela izan zen plaza hainbeste jendez lepo beteta ikustea. Urtero bezala, bazkaria Tintigorri konpartsak prestatu zuen. Ostean, Orkresta Elektrotxarangarekin auzoko kaleetatik ibili ginen dantzan. Ohiturari jarraiki, arratsaldeko 20:00etan Bihotz Alai dantza taldearen eskutik erromeria jendetsua izan zen Done Petri plazan eta egun luzeari amaiera emateko, Beranduegi Erromeriaren berbena izan genuen. Aurtengo inauteriei amaiera emateko, igandean talde eta norbanakoen desfilea abiatu zen San Felizisimotik Done Petri plazaraino, Madariaga etorbidea zeharkatuz. 23 parte hartzaile igaro ziren Deusto Bizirikek osatutako epaimahaiaren aurretik. Azkenik, Lylo & 7 kale taldeak girotu zuen plazan inauterien amaiera.

San Inazion, Erriberan, Ibarrekolandan eta Arangoitin otsailaren 25ean

'Pelikulak' izan da Arangoitin mozorrotzeko hautatu duten tematika. Horri jarraiki, 12:00etan txupina eta kuadrillen desfilea izan dira Eguileor plazan. Eguerdian, Peña del Sardok antolatutako babarrun bazkari herrikoia, eta bazkalostean, Gautxori koadrillak antolatutako jolas kooperatiboak egin dituzte La Zonan.

Inauteri egunari amaiera emanez, Javi Bravo DJaren disko festa izan zen anfiteatroan gau partea girotzen.

San Inazioko inauterietako tematika berriz, mundu magikoa izan da. Goizean, 12:30ean, La Traviatatik Levante plazaraino abiatutako desfilea eta sari banaketa jendetsuak izan ziren. Arratsaldean Miño tabernan hasitako poteo musikala egin zuten eta azkenik, DJ Kastaren emanaldia.

Ibarrekolandan otsailaren 25ean ere ospatu dituzte inauteriak. 11:00etatik 14:00etara umeentzako tailerrak eta puzgarriak antolatu dituzte. Ostean, 12:30ean, Kokotean Kolpe Fanfarrearen emanaldia izan da auzoko kaleetan zehar eta 14:30ean, indaba jana herrikoia. 18:00etan abiatu da Ibarretukada taldearen emanaldia eta ordu erdi beranduago, 18:30ean, adin guztiei zuzendutako diskodantza egon da.

Amaitzeko, Erriberako Txitxardin Jai Batzordeak egun osoko egitaraua prestatu du otsailaren 25ean. Goizean umeentzako puzgarriak eta tailerrak egin dituzte Bizinahi auzogunean. Ondoren, 13:00etan Bitxo do Samba batukadak girotutako mozorro desfilea egin dute. Azkenik, Bizinahin egindako bazkariaren ostean, elektrotxarangak eta Ruizza DJak girotu dute arratsaldea.

“ZUTAZ KEZKATZEN NAIZELAKO ESATEN DIZUT”

Testua: Ainhoa Maiztegi

Ziurrenik behin baino gehiagotan entzun edo esan duzu izenburuan ageri den esaldia. Eta noski, beti asmo onenarekin egin duzu, hori ez dut zalantzan jartzen. Baina osasunaren arloan, intentzio onenarekin egitea ez da nahikoa. Eta, gure ustetan egokia dena, beste pertsonak era guztiz ezberdin batean jaso dezake, ez baitugu denok informazioa berdin interpretatzen. Hortaz, halako iruzkinak egitea doakoa den arren, kontuan hartu behar dugu iruzkin horiek nola interpretatuko dituen jasotzaileak. Honaino azaleratutako hausnarketa nahiko logikoa delakoan nago. Aldiz, ez da gure inguruan sumatzen dena.

Otsailaren hasieran, 2023-ko Goya sari banaketen ildora, Berta Vázquez aktoreak bere protokolozko agerpena gauzatu zuen. Eta jakina den moduan, honek eztanda mediatikoa piztu zuen. Une horretatik aurrera bizidun guztion kezka bateratu egin zen: Bertaren osasuna (ironia).

Dieta-kulturarekin edota gizarte gordofobikoarekin zerikusia duten milaka osasun-kezka datozkigu burura Berta Vazquezena bezalako agerraldiak ikusten ditugunean, nahiz eta pertsona horren osasun maila ez ezagutu. Aurretik aipatutako gizarte eredu horri lotuta dihardutenen uste logikoan, norbanako baten osasuna neurtzeko faktore nabariak besterik ez dira erabili behar: bere gorputzaren forma, alegia. Akaso, robotak izango bagina, ideia horrek gauza-tzeko aukera izango luke, baina ez da hori gure errealitatea, dimentsio anitzeko gizakiak baikara. Gordofobiak ez dio pertsona gizenak gorrotatu behar direla. Gordofobia pairatzen dutenpertsonek gizentasunari beldurra diote, bai norberaren bai besteen gorputzetan. Hortaz, gordofobia, loditzea zerbait negatiboa dela eta honek pertsonen balioa murrizten duela pentsatzea da. Bestalde, osasun egokiaren paradigmak osasun egoera hobea izateagatik moralki besteon gainetik egotera bultzatzen zaitu. Ez batak ez besteak ez dute ongi jasotzen osasunaren balore holistikoa.

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) hitzetan: “Osasuna ez da soilik gaixotasun eza. Baizik eta ongizate fisiko, mental eta soziala”. Beraz, egoeraren bat osasungarri a den edo ez jakiteko, esparru guztiak kontuan hartu beharko genituzke. Hala ere, haratago noa. Nola dago osatuta esparru bakoitza?

Osasun fisikoa: gure gorputzarekin konektatzea, paseoan joatea, kirola egitea, lo egitea, deskantsatzea, mugikortasuna eta malgutasuna lantzea, osasuntsu jatea... .

Osasun emozionala: eskertasuna eta asertibotasuna lantzea, estresaren maneiua, heziketa emozionala, norbanakoari denbora eskaini eta disfrutatzea, terapia hastea, autonomia edukitzea... .

Osasun soziala: sare sozialen erabilera egokia egitea, mugak markatzea, lotura osasungarriak sortzea, adiskidetasun horizontalak

izatea, komunikazioa lantzea, laguntza eskatzen jakitea... .

Alabaina, ez da hain sinplea osasunaren dimentsioa ezta? Ez daukagu edonoren osasun maila epaitzerik, ez baititugu ezagutzen norbanakoa inguratzen duten esparruak. Eta, jakinda ere, ez dugu zertan elkarbanatu edo horren inguruan aipamenik egin. Ez da gure kontua. Norbaitek gure laguntza edo iritzia jakin nahi izatekotan, galdetu egingo digu. Eta hori gertatzeko elkarren arteko konfiantza eremua eraikitzean datza gure eskuhartze bakarra.

Amaitzeko, Bertak eta beste hainbat emakumek jasotako erasoak publikoki salatzeko aprobetxatu nahi dut. Utzi alde batera pentsamendu fobiko guzti horiek "kezkaz" makilatzeari. Ez ditugu zuen iritzi eta usteak behar. Aski da!

Ainhoa Maiztegi
@ainhoamaiztegi.nutricion

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

DAFNE GONZALEZ VILLAR
Emakumea eta sortzailea

Batzuetan sorkuntza-prozesua ez da bide erraza aurretiazko ideia lortzeko beharrezkoa den introspekzioagatik. Galduta nabilen une horietan, beti itzultzen naiz nire artista tribuetara: Imaginautak eta Cancha Libre-ra. PREST!eko nire azken ekarpenean, artea sostengatzen duen jendearen garrantzia azpimarratu nahiko nuke, beharrezkoa baita hizkuntza berriak partekatu eta ikasi ahal izateko. Sistema kapitalista eta patriarkal honetan kultura nagusi bat dago (asko identifikatzen ez gaituena, batzuetan eskuraezina eta ikusezina den kultura bat). Egoera horren aurrean, uste dut beharrezkoa dela kontrakultura bat aldarrikatzea, jatorri ezberdinetako ahotsak entzunaraziko dituena, eta pertsona guztiek beren lanak aurkeztea ahalbidetuko dituena. Uste dut, halaber, sozialki artearen ideia garatu egin behar dela oraindik. Artista etxe orratz bateko azken solairuan bizi ez den bezala, arteak nire ustez kalean egon behar du eta irisgarria izan behar du, eta adierazpide gisa ulertu behar dugu. Horrekin, arteak izan dezakeen gaitasun inklusiboa azpimarratu nahiko nuke: esku-hartze sozialetan, tratamendu psikiatrikoetan, geriatrikoetan, minbizi-tratamenduetan eta abarretan. Nire ustez, hezkuntzak garrantzi handiagoa eman beharko lioke, ez bakarrik egile handiak ezagutzera ematen, baizik eta ikasleei bestelako alor batzuen bitartez adierazten irakasten, besteak beste argazkigintzaren, pinturaren, musikaren, dantzaren, edota poesiaren bitartez. Mundu honetan, badirudi adierazpen-aukera ukatzen zaigula, eta funtsezkoa da gurekiko nahiz gainerakoekiko dugun harremanerako. Hemendik, sortu nahi baduzue edo zuengandik hurbil buru sortzaile bat baduzue, animatu sortzen jarraitzera. Hemendik, esatea norbaitek Imaginautak-eko eszenatokira igo nahi badu bere lana erakustera, gogoz hartuko dugula. Hemendik, besarkada erraldoia guztiei.

Doinua: Habanera

ITXASO LEJARZA ARGIARRO
Elorri bertso-eskolako kidea

Neguaren hondarrean
Deustu da oso berezia
euri-jasaren erdian
eguzkiaren izpia.
Elorri bidez bertsoak
hemen eginda kabia
Aferak-en azken txanpa
goi-mailako bazkaria.
Sarasola, Bartra, Uria
taldearen aldarria
errimaz, kantuz, indarrez
blaituko da gure herria.
Euskarak du igaroko
gero Deustuko zubia
eta tantaz tanta Bilbon
loratuko Loraldia.

Baina hilaren bihotzean
pizten zait niri herrimina
orduan bihurtzen baita
tomate-herria erregina.
Urtero legez jaietan
goren-gorenean uhina
lotuta dantzatzen dira
oraina eta antzina.
Andrazkoon aurresku zaharra
txosnak, kontzertuak, grina
San Jose egunaz bildotsa
jateko bula hautsiezina.
Martxoan ere badator
une alaia, sorgina
neguko azken agurra
udaberriko txupina

errigora

errigora.eus

martxoak 9 - 29

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

Bat egin Errigora Balioekin

PREST! ALDIZKARIKO BABESLEA EDO BERBAIZU EUSKARA ELKARTEKO BAZKIDEA BAZARA, PARTE HARTU ZOZKETAN!

Bete ezazu despentsa *urte guztirako*

bilbon euskaraz

Bilboko kaleetan gero eta gehiago entzuten da

ZER DA?

E S K A

Bilbao



martxoak 17 - 26

DEUSTUKO JAIAK 2023

deustuko jai batzordea

deustukojaibatzordea@gmail.com

AUZOTARROK
BILBOKO AUZOETAKO JAI BATZORDEAK